


Haririk

Egungo krisialdi
ekonomikoa aztergai

ipar•hegoa



IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

EGUNGO KRISIALDI EKONOMIKOA AZTERGAI

AURKEZPENA	3
MERTXE LARRAÑAGA SARRIEGUI Ekonomian lizentziatuta, UPV/EHU-ko irakaslea	4
ANTÓN BORJA ALVAREZ Ingeniero industrial. Doctor en economía, profesor de la UPV/EHU	7
JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU Ingeniaria. UPV/EHU-ko irakaslea	12
JOSEBA GARMENDIA ALBARRACIN Ekonomian lizentziatua. UPV/EHU-ko irakaslea	19

AURKEZPENA

Ikasketa sindikaletarako LABek duen IPAR HEGOA Fundazioak HARITIK argitalpena kaleratzen du interesgarritzat jotzen diren gaiak jendartean hedatzeko. Ildo horretatik, langileriarengan hain kezka handia sortu duen krisi ekonomikoa sakondu beharreko gaia dela uste dugu, are gehiagoa hartu duen dimentsioaren eta ondorio larrien aurrean. Horrexegatik, krisi egoeraren atzean dauden aldagaiak eta gakoak ikusten lagundu ahal diguten sozioekonomia arloko pertsona gaituen iritziak jaso nahi izan ditugu. Gaia kokatu eta ekarpenak errazteko asmoz, ondorengo metodoa proposatu diegu: 4 galdera egin eta 4/5 foliotan erantzuteko.



Galderak:

1. Zer antzekotasun eta zer desberdintasun ditu egungo krisialdiak produkzio eredu kapitalistari datzekion krisialdi ziklikoekin?
2. Nola uler daiteke interbentzionismoa eta botere publikoek hartzen ari diren zenbait erabaki, eta zer neurri eta preziotan lortuko dute egoera gainditzeko irtenbidea?
3. Zer mailatako eragina jasango du erreala deitutako ekonomiak kapitalaren espekulazio-mugimenduengatik sortu den krisi honen ondorioz?
4. Zer sendotasun eta ahulezia du euskal ekonomiak nazioarteko egoera ekonomiko hain zalan-tzagarriaren aurrean?

Mertxe Larrañaga Sarriegi, Joseba Felix Tobar-Arbulu, Antón Borja Alvarez eta Joseba Garmendia Albarracini egindako lana eta prestasuna eskertu nahi dizkiegu.

MERTXE LARRAÑAGA SARRIEGI

EKONOMIAN LIZENTZIATUTA, UPV/EHUko IRAKASLEA

1.- Zer antzekotasun eta zer desberdintasun ditu egungo krisialdiak produkzio eredu kapitalistari datzekion krisialdi ziklikoekin?

Zikloak kapitalismoaren berezko ezaugarriak dira. Gertatzen dena da normalean hazkunde luzea bizi izaten denean ahaztu egiten dela eta adituak zikloen amaieraz hitz egiten eta teorizatzen hasten dira. Eta hori da gertatu dena azken hamarkadan. Aditu batzuk diote orain hasi berria den krisiak ez duela V irudia edukiko, hau da ez duela jeitsiera eta igoera azkarra izango baizik eta L itxurakoa izango dela, hau da jeitsiera azkarra eta jarraian geldialdi ekonomiko luzea etorriko dela. Itxuraren arabera oraingo krisi finantzarioa II Mundu Gerra eta gero bizi izan den larriena izango da.

Beste krisiekin alderatuz, zer diferentzia ditu gaur egunekoak? Seguru asko denbora pasatzen denean hobeto jakingo dugu oraindik, zoritxarrez ez da eta krisia amaitu eta ez dakigu noiz arte iraungo duen. Begibistako alde bat, abiadura handiko krisia dugula esango genuke. Montaña rusa antzeko batean sartu garela ematen du eta oraindik ea zaigu, antza, gelditzea tokatzen. Hau hasi zen pasa den urtean, 2007an, subprime krisia bezala, hipoteka zikin edo toxikoen krisia bezala, gero inbertsio bankuak jo ditu oso gogor (munduko agente finantzario nagusienetakoak direnak eta jendearen aurrezkia manejatzen dutenak). Eta hau amaitu baino lehen, banka komertziala ikutu du eta momentu honetan berriz burtsaren crasha bizi dugu. Behar bada hau argitaratzen denerako beste fase batean egongo gara.

Nere ustez egon dira aurretik oso gertaera kezagarriak. Bretton Woodseko sistema amaitu zenetik, hau da hogeigarren mendeko hirurogeiko hamarkadaren hasieratik hainbat krisi finantzario egon dira. Autore batzuk krisi finantzario gisa bakarrik herrialde emergenteetan gertatutakoak hartzen dituzte kontuan (Mexikokoa 1994an, Asiakoa 1997an, Argentinakoa 2001-02an, eta abar) baina hauek gainera egon dira Iparralden, AEBan batez ere, kezkatzeko moduko gauzak eta orain gertatzen ari denarekin antza dutenak: Long Term Capital Management (LTCM) arrisku handiko fondoaren porrota 1998an (komeni da ez ahaztea fondo hau ekonomiako bi nobel sarik kudeatzen zutela) eta Enron enpresa energetikoaren eskandalua 2001ean esate baterako. Bi hauek erakutsi ziguten besteak beste, enpresek aukerak zituztela, eta asko eta oso imajinatiboak gainera, beraien emaitzak dotoretzeko eta agerian laga zituzten baita enpresa auditoreen gabeziak ere. Eta jakina hor dugu baita XXI. mendearen hasierako teknologia berriekin lotutako enpresen burbuila zulatu zeneko krisia, hau da, "ekonomia berriaren" krisia. Eta pixka bat atzerago joanda garbi ikusten da krisi finantzarioak ez dituela bakarrik herri emergenteak ukitu, 1989an potentzia ekonomiko bat harrapatu zuelako, Japonia hain zuzen ere.

Jakina faktore askok eragin dute krisi honetan, abariziaren krisia bezala kalifikatu du batek baino gehiagok eta ez da definizio txarra. Banku batean lan egiten duen lagun batek esan zidan berari galdetzen diotenean krisia azaltzeko esaten duela, begira, da pertsona bati kreditu txartel bat ematea bezala eta esatea: Aizu, hartu eta egin nahi duzuna, erabili nahi duzun bezala, zu lasai. Eta handik hilabete batzuetara, abisatzeko, esatea: Aizu, orain itzulidazu gastatu duzun diru guztia.

Lehen aipatu dugun diruzalekeria edo abarizia asko zabaldu da gizartean azken urteotan eta bereziki exekutiboaren artean. Honek enpresen kudeaketan ondorio erabat negatiboak izan ditu: hauen irabaziak epe motzeko emaitzekin lotzen ziren eta hortik etorri da enpresen kudeatzaileen ahaleginak enpresak burtsan zuten baloreen igoerak lortzera zuzendutzea batez ere. Exekutibo hauek benetako izarrak bihurtu dira, enpresen jaun eta jabe bezala jokatu dute eta joko guzti honetan enpresa ebaluatzaileek ere eduki dute zerikusia. Orain hasi dira gobernu batzuk soldata hauei limiteak jartzen, bina zelako limiteak! Eta jakina gutxi batzuen soldata ikaragarri altu hauek bataz besteko soldatak puztu egin dituzte.

Eta Bretton Woods ezkerotik eman diren beste krisietan gertatu den antzera, batez ere Asiakoa eta gero, oraingoan ere sistema finantzario berri batez asko hitz egiten da, Bretton Woods II baten beharra behin eta berriro entzuten dugu. Espero dugu, oraingoan bai, oraingoan arau berriak finkatzea, merkatu finantzarioak erregulatzeko neurriak hartzea zeren eta aurreko krisietan asmo on guztiak ahaztu egiten ziren krisiaren momentu gogorrenak pasa orduko eta "arkitektura finantzario berria" eta antzeko kontzeptuak ezereSean gelditu ohi dira.



2.- Nola uler daiteke interbentzionismoa eta botere publikoek hartzen ari diren zenbait erabaki, eta zer neurri eta prezioetan lortuko dute egoera gainditzeko irtenbidea?

Ulertu daiteke ideologi baten amaiera gisa. Horrela ulertu nahiko genuke behintzat baina ikusteko dago. Azkenengo mende laurdenean egitza ematen ziren hainbat ideia kolokan jarri dira, dogmatzat hartu izan diren egiak gezurrak zirela ikusi da, adibidez, garbi geratu da merkatua ez dela panta-zea. Baina interbentzionismoa ulertu daiteke baita ikuspuntu erabat praktikotik, sistema salbatzeko neurri gisa, hau da, ondo funtzionatzen ez duen merkatua salbatzeko. Orain arte agintari ekonomiko-koen helburu nagusia inflazioa, hau da, prezioen igoera kontrolatzea zen. Eta merkatu finantzaioetan erreskatearen aurka agertzen ziren batez ere "arriku moralaren" arazorik ez emateko, hau da, gaizki portatzen direnei ez zaie lagundu behar bestela denak txarto portatzen hasiko direlako. Baina momentu honetan inflazioa eta arriku morala gripeak dira eta berriz krisi finantzario berriak infartua eragin leika, hau da, sistemaren heriotza eragin dezake eta horren aurrean botika erradikalak ematen dira nahiz eta gripearri onik ez egin. Honelakoetan edozein tresna erabiltzea, baita interbentzionismoa ere, ondo dago.

Egia esan krisi honen inguruko hainbat adierazpen entzun ditudanean ametsetan nengoela pentsatu dut, guztiz surrealista iruditu zaizkit. Zerbait ondo ez zebilela hantzematen hasi nintzen orain dela urteterdi inguru Europako eta AEBko agintari ekonomikoak soldata eta kapitalaren arteko errenta banaketa hain ezberdinaz kexatzen hasi zirenean. Harrezkero azken aldian entzun ditugun hainbat iritzi eta parte-hartze guztiz harrigarriak dira. Adibidez estatuko enpresari buruak merkatuan eternaldi bat egin behar zela adierazi zuenean, hori, benetan, marko batean ipintzeko moduko esaldia da. Bush bezalako agintaria bankuen aktibo toxikoak erosten ikustea ez da ohikoa. Horrelakoak Estatuaren parte-hartzea arazo bezala ikusi dutenen ahotan entzutea gutxienez bitxia da.

Eta ematen ari diren bankuen nazionalizazio partzialak eta abar erakutsi dute hainbatetan entzun duguna, ba gauzak ondo joaten direnean irabaziak modu pribatuan banatzen direla baina gauzak txarto doazenean galerak guztion artean ordaintzen direla. Eta oraingoan zenbat ordaindu beharko dugu? Askok inolako zalantzarik gabe. Baina erakutsi du baita ez dela egia 25 urteetan zehar behin eta berriro azpimarratu den ideia eta Greenspan bezalako guruak oso gogor defendatu dutena, hau da, ez da egia merkatuak bere kabuz erregulatu direla, gezurra den bezala erregulazio publikoak kalteak bakarrik eragiten dituela. Edozein jokotan arauak beharrezkoak dira eta merkatu finantzaioetan ere bai. Tranpak egitea debekatuta egon behar da, ezin baita espero tranpak libre izanda jendea ondo portatzea.

3.- Zer mailatako eragina jasango du erreala deitutako ekonomiak kapitalaren espekulazio-mugimenduengatik sortu den krisi honen ondorioz?

Auskalo! Inor gutxi jakingo du. Ekonomilariak onak dira gauzak azaltzen baina pasatakoan eta oso gutxi asmatzen dute etortzeko dagoena. Batzuen arabera depresioaren hasieran gaude eta depresioa atzeraldia baino larriagoa izaten da: jarduera ekonomikoa bapatean gelditzen da, eskaria ahuldu egiten da, nazioarteko merkataritza moteltzen da, langabeziak gora egiten du, eros ahalmena jeitsi, eta abar eta abar.

Ekonomia erreala erabat kaltetua gelditukoaren adibidea Europako batzordea ekonomia errealarari laguntzeko plan bat diseinatzen aritzea da. Behar bada aurreko krisien historiak eta bereziki 29ko Depresio Handiak irakatsi zuelako Roosevelt presidentearen New Deal planarekin, parte-hartze politikoa ezinbestekoa dela zulotik ateratzeko. Baina ekonomia errealaren erreskatatzeko plan honen atzean egon daiteke baita aurpegi garbiketa bat. Hau da nire ustez jendeak ez du ondo ulertu urteetan zehar hainbesteko irabaziaz izan dituzten eta inori begiratzeko jokatu duten bankuei hainbeste laguntzea garai txarrak iritsi direnean. Beraz agintariak hasi dira esaten baietz, horiei laguntzen zaiela baina ez horiei bakarrik hiritar arruntok ere jasoko dugula baita laguntza.

Espero dugu 29ko krisiaren osteko depresio handia (John Steinbeckek modu bikainean deskribatu zuena) adina handia ez izatea jasango dugun depresioa zeren eta bestela gureak egin du. Nere ustez sektore industrialak eta zerbitzuak asko ikutuko ditu krisiak. Hipoteka toxikoen krisia bezala hasi zenez, sektore inmobiliarioa eta eraikuntza sektorea berehala jo zituen eta hauetan gertatu ziren langileen lehen kaleratzeak. Ondorioz langabezi tasak igotzen hasi ziren, kasu honetan eta behingoz gizonezkoenak gehiago igo dira emakumezkoenak baino eraikuntza oso sektore maskulinoa delako, maskulinoena ez bada. Baina gero beste sektore batzuk era kaltetuak izan dira batez ere autogintza eta antza zerbitzu sektorearean ere (ostalaritza eta abar) perspektibak ez dira oso onak. Ez da komeni ahaztea askotan, adibidez kotxegintzako enpresen kasuan, produktoreak erakartzeko laguntza publiko asko jaso zituztela bere garaian eta orain ez zaie inolako erresponsabilidaderik eskatzen.

Krisiak bankuen arteko eta bankuenganako desconfidantza ekarri du eta honek berriz kreditu murrizketa ekarri du. Orain dela gutxi kredituak lortzea ez zen zaila, diru errazaren garaia bizi izan dugu baina hori bukatu da. Kreditu faltak enpresa askori egingo die kalte epe motzeko ordainketei eta aurre egiteko finantziarioa behar izaten dute eta. Dena dela, eta beste krisietan gertatu den antzera, oraingoan ere batzuk aprobeztatu egingo dute une konplikatu eta korapilatsu hau berregituratzeko eta plantilak murrizteko.

Baina aukera bat ere bada gaizki egin diren gauzekin amaitzeko, gauza konkretu eta baita ideia handiekin ere: exekutiboen soldata astronomikoekin, banketxeen irabazi estratosferikoekin, inork ulertzen ez zituen aktibo finantzarioen ugalkortasunarekin, erregulazio faltarekin, merkatuaren sakralizazioarekin eta batez ere Margaret Thatcher eta Ronald Reaganek hasi zuten ultraliberalismo garaiarekin amaitzeko aukera izan daiteke.

4.- Zer sendotasun eta ahulezia du euskal ekonomiak nazioarteko egoera ekonomiko hain zalantzarriaren aurrean?

Ez zait iruditzen berezitasun berezirik duenik. Zorritzarrez krisi honekin primeran ikusten ditugu globalizazioaren ondorio kaltegarriak. Ez dakit oso ondo ze gauza on ekarri dituen globalizazioak baina orain ikusten dugunez krisiak eta honen kalteak bai globalizatzen direla, kutsadura efektua deitzen dena inoiz baino azkarrago zabaldu baita. Printzipioz eta momentuz ez du ematen hemengo agente finantzariak eta oso kaltetuak izan direnik baina egia esan ez dakigu zein puntutaraino ikututa dauden ala ez. Problema da kaltea agertu aurretik denak ondo daudela ematen duela. Krisi honek erakutsi digu benetako egoera disimulatu egin leikela asuntoak eztanda egin arte. Kezkagarriena behar bada zera da posible dela porrota jasango duten arduradun batzuk ere horren jabe ez izatea.

Gure ekonomia oso irekia da eta irekia den neurrian kanpoan gertatzen denak eragingo dio. Hori bai, ematen du momentuz gauzak ez doazela beste toki batzuetan adina txarto, adibidez gaur EAEko langabezi tasa estatukoa baino bost puntu baxuagoa da eta hemen langabezi tasa ez da azken bi urteetan apenas igo. Baina ez dakigu ondo zer gertatuko den, hemen ere jakin dugu adibidez enpresa aeronautiko batek hainbat langile botako dituela. Bestalde aspaldiko partez, aurkeztu berri den aurrekontuen proiektuak 300 milioi euroko zorra aurreikusten du krisia dela eta, hau da, onartzen da krisia egon badagoela. Seguru asko ez gara oraindik okerrenera heldu. Poztuko ginateke asmatuko ez bagenuke baina seguru asko oraingoan ere kaltetuenak ahulenak izango dira, hau da, bizitza mailan kalte handiena izango dutenak ez dira inondik ere ondoen bizi direnak izango.

ANTÓN BORJA ALVAREZ

INGENIERO INDUSTRIAL. DOCTOR EN ECONOMÍA. PROFESOR DE LA UPV/EHU



1.- ¿Qué semejanzas y diferencias crees que tiene la crisis actual con las crisis cíclicas inherentes al modelo de producción capitalista?

Los ciclos económicos "normales" tienen una duración entre 8 y 10 años, con sus fases de recuperación, expansión, crisis y recesión. Las crisis del capitalismo moderno son crisis de sobreproducción, en la que la demanda es incapaz de comprar todo lo que la oferta le ofrece la diferencia entre la demanda y oferta se cubre a través de la expansión del crédito y otros instrumentos financieros que permiten seguir produciendo y vendiendo.

La crisis actual viene marcada por la financiarización de la economía. Aproximadamente desde el comienzo de los años 80 hasta la actualidad, tanto en Europa, como en los EEUU y Japón se ha producido el fenómeno de un ascenso paulatino de la tasa de beneficio y un retroceso de la tasa de inversión empresarial y, a la vez, una disminución porcentual del peso de las rentas salariales en la riqueza producida. En el caso de Europa, la parte salarial de la riqueza global producida ha pasado de suponer el 66%, en el periodo 1978-1982, al 57% en 2008. Asimismo los dividendos, en el caso francés, suponían el 12 % de la masa salarial en 2007 frente al 4% que alcanzaban en 1982. Vemos, por tanto, que las finanzas se han convertido en el "lugar" donde los capitales buscan la mayor rentabilidad y que va aparejado con la menor inversión productiva y con el aumento creciente de desigualdades sociales.

Por una parte se ha generado un volumen creciente de capital que se valoriza como capital bursátil, en diversas formas, y por otra parte el consumo derivado de las rentas salariales disminuye y el consumo derivado de las rentas no salariales (rentas financieras) aumenta.

En el caso de EEUU, la crisis de las hipotecas de alto riesgo ha precipitado la crisis inmobiliaria y la crisis bancaria, empujando la crisis financiera y la crisis productiva. Y por medio de la globalización, la crisis financiera se ha extendido a la Unión Europea y a otros países. Como era previsible, la recesión económica ha venido y se ha instalado en Europa con diversos grados, según los países.

2.- ¿Cómo se explican el intervencionismo y las diversas decisiones que se vienen adoptando por los poderes públicos, y en qué medida y a qué precio van a conseguir encontrar soluciones para salir de la actual situación?

Como es conocido en EEUU el Congreso ha aprobado el Plan Paulsen que consiste en la inyección de 700.000 millones de dólares para "salvar" a los bancos y al sistema financiero. También en varios países europeos se han tomado medidas parecidas. Las medidas incluyen inyecciones de liquidez monetaria y adquisiciones de participaciones públicas y de acciones en los bancos, bautizadas como "nacionalizaciones". Gran Bretaña ha "nacionalizado" el 50% de su sistema bancario en octubre 2008 y el gobierno estadounidense va a utilizar 250.000 millones de dólares para comprar acciones a los bancos sin derecho a voto. Si en el caso inglés el gobierno tiene voluntad de intervenir y de tomar decisiones políticas en la marcha de los bancos, en el caso americano no es así y son los consejos de administración bancarios, sin "ingerencias" gubernamentales los que toman las decisiones. Y en los dos casos, una vez que hayan pasado las turbulencias actuales las participaciones públicas en el capital bancario serán vendidas al mejor postor. Por tanto, estas medidas reguladoras sirven para mejorar la eficacia de las políticas neoliberales, sin condicionar las estrategias en la esfera financiera. Por eso podemos afirmar con M. Husson que "la inyección de dinero de hoy alimentará la burbuja financiera de mañana y la crisis financiera de pasado mañana".

Como vemos no tiene nada que ver este tipo de intervención pública en el sector financiero con la nacionalización y el control público de la esfera financiera enfocada como un servicio público y con una lógica diferente de la búsqueda constante del beneficio.

La Unión Europea ha adoptado medidas coordinadas en la esfera financiera (medidas técnicas para estabilizar la situación bancaria) y también preconiza medidas para mejorar la economía productiva. Por otra parte el pasado 15 de noviembre el G-20 ha adoptado ciertas medidas que hacen referencia al control y transparencia de la banca internacional, ampliar la regulación para mitigar los efectos de la crisis, se “promoverá la integridad ética de los mercados financieros y la protección de los consumidores” y “se propone la reforma del Fondo Monetario Internacional y el Banco Mundial con la finalidad de adaptarlos a los desafíos de los tiempos actuales”. Como vemos se trata de medidas muy generales que en los próximos meses se concretarán.

Es sintomático que en EEUU, después de haber aprobado el plan de salvamento de los bancos, se plantee un plan de rescate para la economía productiva y para diversos grupos sociales. Obama ha prometido abordar pronto los retos sociales. Krugman, premio Nobel de economía, plantea un plan de relanzamiento económico ambicioso que abarca desde la realización de infraestructuras hasta ayudas sociales para colectivos desfavorecidos, ayudas a pequeñas empresas... Pero este enfoque choca con dos obstáculos importantes. Por una parte los recursos dedicados a los planes de salvamento bancario no dejan mucho margen de maniobra para dedicar otro volumen grande de recursos para planes sociales a no ser que se apueste por un déficit público extraordinario cuya financiación deberá ser costeada por el resto del mundo. Y por otra parte este enfoque de planes sociales choca con la competitividad exacerbada de amplios sectores de la sociedad estadounidense.

En el caso de la Unión Europea se plantea una reprogramación de los fondos de cohesión y de los fondos estructurales. Asimismo inyectar dinero en el Banco Europeo de Inversiones para proporcionar préstamos a pequeñas y medianas empresas; también se plantean otras medidas que incluyen “más inversión en educación, competitividad, investigación y desarrollo”, y el impulso de energías renovables y la adaptación al cambio climático. ¿De donde saldrá el dinero necesario para fomentar el empleo y el consumo?. La respuesta está en los Estados miembros dado que el presupuesto de la Unión Europea no supera el 1% del PIB comunitario. Por ello cada país está articulando medidas específicas dentro de una orientación liberal. Es significativa la debilidad del proyecto europeo ante la crisis. Cada país se sitúa de forma diferente ante la crisis porque su inserción en el mercado mundial, su especialización industrial y su sensibilidad ante la tasa de cambio del euro es diferente. Y la crisis va a acentuar las divergencias de las economías de cada país europeo. Por ello los tiempos de salida de la crisis depende de varios factores tales como el tamaño de los volúmenes de dinero dedicados al salvamento financiero y de las estrategias que se implanten para mejorar el tejido industrial y productivo y la mejora de la cohesión social.

A señalar que China ha anunciado un plan financiero por valor de 586.000 millones de dólares hasta 2010 para revitalizar la economía doméstica y contribuir, de paso, a reactivar la economía mundial.

3.- ¿La economía llamada real en qué medida quedará afectada por la crisis derivada de los movimientos especulativos de capital?

Estamos ante una crisis de modelo de crecimiento: se prima el valor de las acciones; el endeudamiento de las familias (a través de un tipo de interés muy bajo) muy ligado al sector inmobiliario que, en el caso español, ha sido tractor de todo el sistema económico; una fiscalidad no redistribuidora de rentas; deslocalizaciones de empresas así como reestructuraciones, con el consiguiente debilitamiento del tejido productivo.

Por ello no es de extrañar que autores como J. Sapir planteen, ante el caso español, un fuerte incremento del endeudamiento público de modo que se prevé una necesidad de financiación de 25% del PIB para las Administraciones Públicas para los próximos 3 años. Las empresas sufrirán una fuerte contracción de la demanda y tendrán que endeudarse en 8-10% del PIB de aquí al 2011. Y si se apuesta por relanzar la economía, la inflación va a estar presente, con lo que se deben adoptar medidas que aumenten las rentas salariales, para fomentar el consumo, lo que supone una cierta disminución de rentas financieras.

En este mismo sentido es preciso reavivar políticas industriales en varios países europeos, siendo el Estado un actor directo e indirecto muy importante.

En cuanto a la independencia del Banco Central Europeo, dicho dogma debe ser abolido y se deben replantear sus funciones en la orientación social y productiva señalada, subordinando la política monetaria a dichos objetivos. Una reorientación radical implicaría que el presupuesto de la U. Europea alcanzara un valor cercano al 20% del PIB europeo.

Ante los retos de la globalización imperante se debe caminar hacia un replanteamiento del sistema monetario y financiero mundial, y también conllevaría cambios en el Fondo Monetario Internacional y en el Banco Mundial.

Ante objetivos ambiciosos en consonancia con los retos existentes, es evidente que las dificultades se acrecientan. De cualquier forma los flujos financieros internacionales deben ser severamente reglamentados. La puesta en práctica de una tasa Tobin, o similar, que grave las transacciones financieras internacionales; la desaparición de los paraísos fiscales; un control estricto de fondos de alto riesgo y la implantación de medidas y mecanismos que favorezcan la transparencia financiera internacional, y el control de los flujos de capitales que limiten el impacto de los movimientos de mercado y de la especulación sobre los tipos de cambio monetario. En el marco de la Unión Europea sería muy conveniente la supresión del artículo 56 del Tratado de Lisboa que prohíbe toda restricción a la circulación del capital (demanda apoyada por más de 37.000 firmas).

A la vista de la dinámica que lleva la crisis actual y de la dirección que los grandes poderes económicos (G-20) que tratarán de cargar gran parte de los efectos de la crisis en las espaldas de las personas asalariadas y de la mayoría de la población: aumento de la tasa de paro, recortes salariales, reducción del gasto social, deterioro de las pensiones..., conviene resaltar ciertas líneas de actuación:

- a) Reconocimiento del crédito y de los seguros como servicios públicos y, por tanto creación de un polo financiero público que englobe actuaciones directas de la Administración Pública y de entidades semipúblicas como las Cajas de Ahorros.
- b) Rechazo contundente de los despidos en empresas con beneficios, que utilizan la crisis como pretexto.
- c) Reforma fiscal con mucha mayor progresividad, e implantar un impuesto específico para las grandes fortunas para crear un fondo de solidaridad.
- d) Mantenimiento del poder adquisitivo de los salarios, mediante la escala móvil de salarios.
- e) Contra las 65 horas/semana y por la reducción de la jornada laboral, como medio de evitar despidos y de crear empleo y tiempo libre.

4.-¿Qué fortalezas y debilidades tiene la economía vasca para hacer frente a una situación económica internacional tan incierta?

Un primer indicador del “nivel de vida” de Euskal Herria nos señala que la riqueza “per cápita” (en paridad de poder de compra) es de 26.783 euros (año 2004) valor superior a la media europea, habiendo diferencias entre Araba (33.242 euros) e Iparralde (21.517 euros).

Si analizamos la estructura productiva vasca. En el sur de Euskal Herria la industria sigue siendo el motor fundamental de nuestra economía, aunque los servicios tengan mayor peso en el PIB y en el empleo. En cambio en Iparralde apenas el 7 % de su PIB corresponde a la industria.

Respecto a la crisis actual, es cierto que el sector de la construcción no tiene el peso económico que en el conjunto del Estado, y por tanto su impacto en la crisis es menor, pero es preocupante el volumen de familias endeudadas por hipotecas de viviendas y sus efectos en la disminución del consumo. No es casualidad que ha disminuido, en los últimos meses, un 20 % la venta de coches y parecidas cifras en la venta de viviendas.

La estructura industrial vasca es bastante vulnerable en la crisis y posteriormente a la crisis. El sector de componentes de automoción es importante en el sur de Euskal Herria, cuenta con más de 41.000 empleos y está siendo afectado por la crisis del automóvil. El sector de la construcción ha perdido 5.500 empleos en el tercer trimestre de este año, y ese declive del sector arrastra a subsectores de mueble, electrodomésticos y equipamiento de hogar que reducen sus ventas y empleo. Además la recesión europea existente, y que se prolongará al menos en 2 años, impacta en nuestras exportaciones, lo que se apreciará en ciertos subsectores de bienes de equipo, metal mecánicos...

Si analizamos la inversión en I+D, el valor promedio para Euskal Herria es 1,41-1,50% del PIB vasco, estando por debajo del valor medio de la Unión Europea que es de 1,9%. En cuanto a las patentes realizadas por millón de habitantes, si en Navarra la cifra es de 6,2, en la CAV es de 1,46. Cifras alejadas del valor que alcanzan países como Austria, Dinamarca y Alemania, que oscilan entre 20 y 34.

El nivel tecnológico predominante de la industria de la CAV es medio bajo y bajo (68%) y únicamente un 32% de la industria vasca tiene un nivel tecnológico alto y medio alto, siguiendo la clasificación de la OCDE. Parecidos valores podemos señalar para Nafarroa. Si a esto añadimos que alrededor del 35 % de la industria del sur de Euskal Herria es intensiva en consumo energético (sector metalmeccánica, química, cemento...) observamos, por tanto, otro factor vulnerable de nuestra industria.

A la vista de lo anterior podemos explicarnos porqué el capital vasco invierte mayoritariamente en el exterior. Las empresas de Bizkaia, Gipuzkoa, Araba y Nafarroa han invertido desde 1993 hasta marzo 2008, 51.057 millones de euros netos en el exterior y en cambio las inversiones que han llegado al sur de Euskal Herria suman 12.670 millones de euros.

Respecto al mercado de trabajo, es conocido el grado de precariedad, especialmente entre las personas jóvenes y bajos salarios. Es significativo que el salario medio del sur de Euskal Herria sea 30% más pequeño que el salario medio de la U. Europea. A señalar, asimismo, que aunque tenemos una población joven cada vez mejor formada, no se traduce en empleos de alta cualificación y altos salarios. En el colectivo de jóvenes entre 20 y 29 años el volumen de graduados en ciencia y tecnología por mil habitantes en Euskal Herria es de 22,2 (superior al nivel francés y al nivel inglés).

Estas excelentes cifras en el nivel formativo contrastan con su evolución en el mercado laboral. En Bizkaia se está produciendo, en los últimos 10 años, la emigración de 2000 universitarios hacia el exterior (fundamentalmente hacia Madrid y Barcelona). Y un fenómeno parecido, y de mayor peso numérico, sucede en Iparralde.

Respecto a la cohesión social señalar los desequilibrios de rentas existentes. Así en Euskal Herria frente a un ingreso medio de 26.783 euros (año 2004), vemos que en 2006 y para la CAV hay 187.000 personas que viven con 6000 euros/año y para 444.000 contribuyentes su renta no alcanza los 13.000 euros anuales. Si analizamos la protección social, para 2004, el grado de protección social alcanza el valor de 20,07 % del PIB en Euskal Herria frente al 27% de la Unión Europea. Hay diferencias significativas entre los territorios vascos dado que el valor promedio para la CAV es 18,8% y en Iparralde es 31%.



A modo de conclusiones.

Ante la presente crisis, en sus inicios, y su desarrollo, en el contexto europeo los dos ejes fundamentales a desarrollar me parece que deben girar alrededor de:

- 1.- Mejora de la cohesión social. Lo que supone actuaciones en el campo de las rentas salariales, mayor grado de protección social, mejora del mercado de trabajo, mantenimiento del poder adquisitivo de los salarios. Ante el posible aumento de despidos y reestructuraciones de empresas, creación de un fondo de solidaridad a partir de la implantación de un impuesto para las rentas financieras y de grandes fortunas.

Reordenación de la fiscalidad en sentido progresivo, reimplantando el impuesto de patrimonio y revisando los impuestos directos e indirectos.

2. Mejora del tejido productivo vasco. Apoyo a la agricultura sostenible y a la soberanía alimentaria. Mejora del tejido industrial, dedicando recursos a la inversión en I+D (al menos alcanzar el valor de 1,9% del PIB como valor medio de la Europea); mayor volumen de recursos públicos para la modernización empresarial, especialmente de las pequeñas empresas.

Reorientación de la política industrial con un carácter más intervencionista de los poderes públicos.

3. Intervención pública. Potenciar el sector público tanto en las actividades industriales como financieras. Creación de polo financiero público vasco que incluya al Instituto Financiero Vasco (o similar) y a las Cajas de Ahorros, con reorientación de inversiones para la mejora de los sectores productivos vascos. El potencial de recursos de Euskal Herria permite avanzar en estas esferas. Solamente las cajas de Ahorros de la CAV, para 2006, tuvieron un volumen de depósitos por valor de 25.842 millones de euros.

Una combinación de la mejora de la cohesión social y de la modernización y de la innovación en los sectores productivos es la apuesta adecuada para hacer frente a la crisis y a las situaciones futuras con perspectivas de justicia social y de bienestar colectivo.

JOSEBA FELIX TOBAR-ARBULU INGENIARIA. UPV EHU-KO IRAKASLEA


Nire erantzunak ia tesi modura azalduko dira, zeren gai horietaz artikulatu askotxo argitaratu baititut (ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia>). Hortaz, nahi izanez gero, gai horietaz sakontzeko, irakurleak badauka nora jo.

1.- Zer antzekotasun eta zer desberdintasun ditu egungo krisialdiak produkzio eredu kapitalistari datzekion krisialdi ziklikoekin?

Erabat desberdin dira bi krisi horiek, hain zuzen ere, kapitalismoa erabat aldatu duelako. Lehengo kapitalismoa industrialera bereganatu egin du finantza-kapitalismoak. Azken hau da gaur egun garrantzitsua, aztertu behar dena, eta ahal izatekotan, bera gaitzetzeko irtenbideak proposatu.


Ekonomiak ez dira hazten geometrikoki. Haien hazkunde tipikoa S kurba batena da, ziklo ekonomikoa pixka bat gutxitzen joanez. Aurrezkien eta zorren hazkunde esponentziala ekonomia erreala baino handiagoa da. Interes-tasak gutxitzen ez badira, zor-zamak errenta desbideratuko du ondare eta zerbitzuetan gastatuzetik, ekonomia beherantz bultzatuz (ikus 1. irudia).

1. Irudia: Zor osoaren hazkundeak ziklo ekonomikoa gutxitzen du



Beste aldetik, 2. irudian ziklo ekonomikoa eta krisi finantzarioaren modeloa ikus daitezke¹.

2. Irudia: Krisi finantzarioaren modeloa eta ziklo ekonomikoa



Historian atzeraldi labor baten ostean susperraldia zetorren. Orain depresioak galera zabalera darma eta jabegoa zordunengandik hartzekodunengana igarotzen da.

Ziklo ekonomiko batean gaudeneko ideia erabat irreal da². Ziklo baten bageunde, susperraldia automatikoki etorriko litzateke. Merkatu libreko ideia zoriontsua gobernuaren kontrol-politikaren aurkakoez bultzatu zuten. Baina ekonomia ez da mugitzen gora eta beherako kurbaren antzera. Badago indartze motel bat, eta gero bat-bateko erorketa; hortaz, eitea horztuna da.

Gaur egungo higiezin errealeko erorketa eta burtsa merkatuko prezioak ez dira gorabeherako autozuzentzaileak, non jaitsierek martxan jartzen baitituzte egonkortzaile automatikoak (zeintzuek susperraldia produzitzen duten).

Bigarren Mundu Gerlaz geroztik, AEBetako susperraldi bakoitza maila altuagoko zor batean hasi da. Fed-ek banku-sistemari kreditu nahikoa luzatu zion, zorrak kitatu ahal izateko, etxeen, bulego eraikinen, korporazio akzioen eta bonoen prezio gero eta altuagoen aurka maileguak hartuz. Izan ere, interes-karga zor-balantzeari gehitu zitzaion, besterik ez. Orain, Fed-ek bultzaturiko aktibo-prezioko inflazioak zor-deflazioa ekarri du³.

Gertakari berri hori dela kausa, AEBek eta beste herrialde batzuek, muga lortu dute non interesek eta amortizazioek ekonomia osoaren soberakina bereganatzen duten, eta inbertsioa eta enplegu berria eten. Errenta erabilgarri osoa hartzekodunei ordaintzeko erabiltzen da, edo porrotari aurre egiteko.

Aspaldian porrotak zor txarrak ezabatu zituen. Arazoa da zorrak ezabatzearekin, aurrezki txarrak doazela. Gaur egun, oso aberatsak direnek aurrezki gehienak dituzte; eta gobernuak ez dute nahi horiek galera izan dezaten. Horren ordez, erretiroa hartutakoak, kontsumitzaileak, langileak, industria konpainiak eta inbertsiogile atzeritarrak suntsitzen ditu. Hortaz, zorrak balantze-kontuetan geratuko dira eta ekonomia zor-deflazioak astiro itoko du. Ez da beste aukerarik gaurko baldintzetan.

1 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/sua-fire-ote-3-burbuila-finantzarioak> eta <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-kapitalismoa-eta-burbuila-ekonomia>.

2 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fed-etik-europara>.

3 Ikus³ Ikus M. Hudson-en "Saving, asset-price inflation, and debt-induced deflation", in R. Wray eta M. Forstater (ed.) (2006) *Money, Financial Instability and Stabilization Policy*.

Historian atzeraldi labur baten ostean susperraldia zetorren. Orain depresioak galera zabalera darma eta jabegoa zordunengandik hartzekodunengana igarotzen da.

Askotan globalizazioa aipatzen da, baina zer ote da globalizazioa, zeren hitz horren azpian hamaika esangura baitaude? Hona hemen esangura bat:

Egun finantza-inperialismoan gaude murgilduta: hauxe da benetako globalizazioa, non erdigune argi bat baitago: AEBetako Altxor Publikoa. Egoera berri horretara iristeko bidea⁴ oso harrigarria izan bada ere, gaurko finantza-kapitalismoak ezagutu genuen kapitalismoa industrial alboratu du, eta AEBak munduko herririk zorduna izanik, munduko herrialdeetatik ordainketa-superabitak bereganatzen ditu, bazka libre lortuz⁵. Super imperialismo berri horretarako ibilgailua ez dira nazioarteko enpresa pribatuak edo kapital finantzario pribatuak, **banku zentralak** baizik⁶. Are gehiago, teoria zaharrek deus gutxi balio dute fenomeno berri hau aztertzeko⁷.

Nazioarteko mailan AEBetako Altxor Publikoko bonoak dira nagusi eta erreferentzia ia bakarra. Nazio mailan, aldiz, aktibo-prezioko inflazioa eta zor-deflazioa da fenomeno berria, FIRErekin batera azaldu dena.

Egia da euroa gero eta gehiago erabiltzen da mundu mailan. Baina kontua da ea zer egiten den EBko banku zentralari eskatzen zaizkion euro horiekin, nola eta zertan erabiltzen diren. Euroa eskatua da nonahi. Euroa erabilia da hainbat lekutan. Baina arazoa ez da hor bukatzen. Euro horien ibilbideari jarraitu behar zaio, jakiteko zer gertatzen den, non bukatzen diren. (Kasurako, petrolioaren prezioa moneta batean zein beste batean azaltzea ez da funtsezkoa. Moneta horiek, elkarren artean, gora eta behera joango dira merkatu indarren arabera, gehien batez espekulazioaren arabera.) Non bukatzen dute euro horiek? Europar banku zentralak (munduko beste banku zentral guztiek bezalaxe) bere erreserbak AEBetako Altxor Publikoko titulu gisa edukitzen ditu.

AEBek nazioarteko finantza sistema goitik behera aldatu dute. Europar Batasunak, benetako independentzia lortzearren, dolarra alboratu behar du, eta bere finantza sistema eraiki. Baina, jakina denez, EBko herrialdeetan banku zentralak dira nagusi, ez Altxor Publikoak. Banku zentralak beren merkataritza bankuen eta finantza sektoreen alde lan egiten dute, ez nazio interesen alde. Okerrago oraindik, jakina denez, europar banku zentralak kide diren europar gobernuen defizitak murriztu ditu erabat. Horrek esan nahi du EBk ez daukala nahikoa zorra euroa atzerritar erreserben ibilgailu gisa erabiltzeko. AEBek, aldiz, aurrekontu defizita eta ordainketa balantzako defizita, biak, jasaten dituzte, dolarra nazioarteko de facto-ko diru bilakatuz. (Gainera dolarra militarri sostengatutako dirua da, hots, politikoki sustengaturikoa. Argi: boterea da kontua ekonomian.)

Monetaristen mezuen aurka, EBk ordainketa balantzako defizita behar du beste herrialdeek defizit horretan beren nazioarteko diru erreserbak gordetzearren. Hortaz, zein izan daiteke euroaren etorkizuna? Benetako diru politiko bihurtzea. Bitartean jai, hots, AEBak nagusi. Ekonomialari batzuek globalizazioaren aurka haustura globala proposatzen dute⁸.

Nazio mailan, ekonomia nazionala ere erabat aldatu da, FIRE sektorea da nagusi, eta sektore espekulatibo horrek dena baldintzatzen du. (Gaingiroki bada ere, hona hemen aldaketa sakon hori ikeritzeko zenbait zantzu⁹).

4 Ikus http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2005-12-28&orria=005&kont=825.

5 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-inperialismo-berria>.

6 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/superimperialismoa-eta-finantza-ingeniaritza>.

7 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/marx-hasiberrientzat>; <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/ustiaketa-berria>; <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/teoria-zaharrak-eta-zorpetzea>; <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/quid-pro-quo-kontabilitate-arazoak> eta <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/ekonomia-zientzia-eta-balitz-bezalako-airezko-metodologia>.

8 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/nazioarteko-ordena-ekonomiko-noe-berrirantz> eta <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/haustura-globala>.

2.- Nola uler daiteke interbentzionismoa eta botere publikoek hartzen ari diren zenbait erabaki, eta zer neurri eta preziotan lortuko dute egoera gainditzeko irtenbidea?

Interbentzionismoaz eta egoera 'gainditzeko' irtenbidea ukitu baino lehen, gutxienez bi hitz esan behar dira egoeraz.

Alde batetik, AEBetako Fed-en eragina ikusi behar da, baita 'zikloetan'¹⁰ ere. AEBetako merkataritza defizita gastu militarrei¹¹ lotuta dago. Izan ere, burbuila ekonomia ikertzeko, banku zentraleri eta botere militarrei begiratu behar zaie.

Burbuila ekonomia honetan burbuila desberdinak daude¹². Udazken honetan berrindustrializazioari eutsi barik burbuila berria¹³ martxan jartzeko onartu dute. Hori dela eta, harrapariak direnak biktimaren rola jokatzeko ari dira¹⁴. Ondorioz, krisia dago, krisi sakona¹⁵.

Krisi hori gainditzeko, aparteko interbentzionismoa bultzatu da. Autore batzuek, ironiaz edo, Wall Streeteko sozialismoa¹⁶ aipatu dute. (Agian hobeto estatu-kapitalismoa¹⁷ aipatu beharko genuke.)

Interbentzionismo lotsagarri hori ordainduko dutenak hiritar arruntak, langileak eta industria bera izango dira. Aberatsentzako sozialismoak hauxe esan nahi du: populazioaren %10a gero eta aberatsago bilakatuko da. Gainontzekoa, populazioaren %90a, gero eta txiroago. Burbuila berriaren ondorio zuzena, zor-deflazioa¹⁸ izango da, hots, langabezia.

3.- Zer mailatako eragina jasango du erreala deitutako ekonomiak kapitalaren espekulazio-mugimenduengatik sortu den krisi honen ondorioz?

Jadanik aipatu dugu FIRE delakoaren ondorioak: aktibo-prezioko inflazioa eta zor-deflazioa¹⁹. Hots, jadanik existitzen diren aktiboak puztea eta langabezia barreiatzea.

Autore batzuen ustez, alta, krisi honek badauka irtenbide bat. Irtenbideak honelako irizpide nagusiak ditu: kredituak ekonomia errealean inbertitzea, zerbitzu sozialetan inbertitzea eta deribatibak eta abarreko espekulazioa moztea.



9 FIRE sektoreaz eta burbuila-ekonomiaz ikus, besteak beste, ondoko lanak: <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fire-sua-ote-1>;

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fire-sua-ote-3>;

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/sua-fire-ote-3-burbuila-finantzarioak>; <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/burbuila-ekonomiko-desberdinak>.

10 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fed-etik-europara>.

11 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/aebetako-merkataritza-defizita-eta-gastu-militarrak> eta <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/burbuila-ekonomia-banku-zentralak-dolarra-eta-botere-militarra>.

12 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/burbuila-ekonomiko-desberdinak>.

13 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/burbuila-berria-ala-berrindustrializazioa>.

14 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/burbuilaren-harrapariak-eta-biktimak>,

15 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/krisiaren-funtsa-matematika-eta-kontabilitatea-besterik-ez>.

16 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/wall-streeteko-sozialismoa>.

17 Ikus <http://henryckliu.com/page171.html> eta <http://henryckliu.com/page172.html>.

18 Ikus FIRE sektoreari buruz esandakoa.

19 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fire-sua-ote-1>

<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/fire-sua-ote-3> eta <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/sua-fire-ote-3-burbuila-finantzarioak>.

Irtenbideak badauka bere alde teorikoa (dirua eta kreditua bereiziz) eta bere alde praktikoa (ekonomia errealean -zentzu zabalean eta sakonean- aritzea, ez espekulazioan). Hona, bada, zenbait zantzu²⁰:

- (1) Dirua nazionalizatzea, ez bankuak²¹. Diru erreala gobernuak jaulki behar du, ez bankuetatik maileguz hartu.
- (2) Finantza-sektore pribatuak porrot egin du. Sektorre publikoak sistema monetarioa kontrolatu behar du.
- (3) Gobernuak sorturiko dirua ekonomia errealean sartu behar da, bereziki azpiegituretan, baita osasungintzarako eta heziketarako giza azpiegituretan ere, ez espekulazioan.

Azken finean, bi irtenbide nagusi aurreikusten dira: (a) finantza-polarizazioa eta zor-peoitzaren bidez elite oligarkiko berri bat azaltzea hala AEBetan nola European; ala (b) zor-deuseztapenaren bidez gizartea bera erreskatatzea, eta ekonomiak beste era batera funtzionatzea.

Zein aterako da garaile?

Badakigu ezen "diru-sistema kontrolatzen duenak nazioa kontrolatzen duela"²² AEBetan emandako oparia populazioaren mailarik aberatsenari eman zaio. Ondorioz, finantza-oligarkia sendotuz doa AEBetan eta nonahi²³.

Mailegu gehiagok higiezin errealeko merkatuak eta burtsa-merkatuak birpuztuko ditu, zor-deflazioa berriz azalduz, benetan fenomeno kaltegarria.

Hortaz, Hudson-ekin batera hauxe esan behar: zorrak ezabatzeko legeak behar dira, ez ekonomia osorako interesa daramaten zorrak areagotzeko mailegu txar gehiagorik. Maileguak ekonomia errealerara zuzendu behar dira (azpiegituretara, industriara, zerbitzu sozialera, hezkuntzara, osasungintzara...), baita kontsumora ere. Inondik inora espekulaziora.

Argi dagoena hauxe da: Industriaren eta finantzaren arteko borroka zutik dirauela²⁴.

Oraingo mehatxua atzerapen industrial globalari dagokio²⁵, eta segituko du harik eta atzerritar barneko merkatuek bertako industriak elikatuko dituzten arte.

Indarrean dagoen dinamika ulertzeko, ordainketa-balantzari begiratu behar zaio -ez merkataritzaren beraren balantzari, baizik eta azken bi hamarkadetan truke-tasak menperatu dituzten moneta-espekulazioari eta nazioarteko diru mailegatzeari²⁶.

Irtenbidea sektore politiko berri batetik etor daiteke, lan-indarraren interesak (eta are industriaren interesak) islatuko dituen politika berri batetik, zeren barneko merkatuak berpiztu behar baitira.

Aro berri baten aurrean egon gaitezke. Politikak du hitza.

20 Ikus <http://nabarralde.com/orriak/eu/eztabaida/ezt181.htm>, 4. eta 5. atalak.

21 Ikus <http://nabarralde.com/orriak/eu/eztabaida/ezt181.htm>, 4. atala.

22 Ikus <http://nabarralde.com/orriak/eu/eztabaida/ezt181.htm>, 5. atala.

23 Ikus <http://nabarralde.com/orriak/eu/eztabaida/ezt181.htm>, 6. atala.

24 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-kapitalismoa-versus-kapitalismo-industrial>; halaber, ikus <http://www.othercanon.org/uploads/Michael%20Hudson%20Financial%20Capitalism%20v.%20Industrial%20Capitalism.doc>.

25 Ikus <http://nabarralde.com/orriak/eu/eztabaida/ezt181.htm>, 7. atala.

26 Ikus <http://www.counterpunch.org/hudson10272008.html>.

4.- Zer sendotasun eta ahulezia du euskal ekonomiak nazioarteko egoera ekonomiko hain zalantzarriaren aurrean?

Aspaldian Europar Batasunean sartu gintuzten, inolako kontsultarik gabe. Gure etorkizuna Europa horretan gertatzen denari lotu behar diogu, onerako eta txarrerako.

Hona hemen joan den 2008ko uztailleak Hudson-i egindako elkarrizketa²⁷ baten zenbait zati:

"Europar Banku Zentrala itxaropenik gabe monetarista da eta (gauza bera dena) lan-indarraren aurkakoa. (...)

"Irteera bakarra norabidea aldatzea da eta Europaren beraren interesen alde aritzea, haren kontsumitzaileentzat produzituz eta ez AEBetako merkaturako -inoiz ordaindu ezin daitezkeen AEBetako Altxor Publikoko bonoen truke-. Barneko europar orientazio ekonomikoak barruko bizitza-standarda jasoko luke eta barneko merkaturak zabaldu, mundua menperatzeko AEBak berak igo ziren modura.

"Baina horrek suposatzen du Europako lan-indarraren aurkako politika aldatzea...."

Hona, aldiz, Euskal Herriaren etorkizunaz dioena:

"Subiranotasun ekonomikoari dagokionez, helbururik garrantzitsuena zerga-sistemaren gainean kontrola lortzea izango litzateke, errenta ekonomiko eta 'ez-irabazitako errenta' (produkzio kostuetan beharrezko kontrapartida ez daukaten prezioak) zergapetzeko. Ebatzi beharko zenukete interesak ez direla zerga kengarriak. Azken politikak banku-gestiogileak mantenduko lituzke kreditua ez hornitzen atzerritarrek finantzatzeko, azken hauek zuen baliabideak erostearren. Halaber, daukazuen pentsio-fondoko aktiboak erabili beharko zenituzke lan-indarraren kudeaketa sendoko erabakiak segurtatzeko.

"...Helburua izango litzateke zuen zerga-politikaren eta politika finantzarioaren kontrola lortzea."

Hortaz, zer esan daiteke²⁸ Euskal Herriko ekonomiaz²⁹? Ez da nahikoa euskal Banku Zentral batek euroa jaulkitzea. Euroa benetako diru politiko bihurtzea bultzatu behar dugu. Beraz, Europar Batasunean eta Euskal Herriaren Altxor Publikoa izan behar da nagusi.

Euskal Herria txikia da, natur baliabideak eskasak, petroliorik gabekoa, ekonomia oso irekia beraz. Baina daukagun altxorra lan-indarra da. Lan-indarra era zabalean hartuta, hasi langile, nekazari, arrantzaileekin eta bukatu enpresa txikiko eta ertaineko enpresarekin. Horixe da gure altxorra. Hori da zaindu behar duguna.

Hudsonek erakutsi duenez, finantza-kapitalismoak lan-indarra eta kapitala industrialara, biak, ustiatzen ditu³⁰. Hortaz, hona hemen zenbait proposamen zehatz gure Euskal herrirako:

27 Elkarrizketa osoa prentsan dagoen "Finantza-Kapitalismoa. Euskal Herrirako irtenbide ekonomikoak" delako liburuan azaltzen da.

28 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/puntu-berriak-bertsolaritza-berrirako>. Balediko Euskal Herri independentean, Euskal Banku Zentralak (BZ) euroak jaulkiko ditu, frantziar, espainiar zein alemaniar BZek egiten duten bezala. (Jakina datekeenez, 'balede' potentziala da; 'balitz' irreal.) Euskal Banku Zentralari buruz, ikus http://www.berria.info/testua_ikusi.php?saila=iritzia&data=2005-09-06&orria=006&kont=016. Baina, nahiko ote da euskal BZ edukitzea, ekonomian independentea izateko?

29 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/separatista-bai-noski>.

30 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/finantza-kapitalismoa-versus-kapitalismo-industrialara>.



Euskal Herriko bi sektore garrantzitsuak, hots, lan-indarra eta kapitala industrialari babestu beharra dago: horiek biak zaindu eta babestu behar ditugu, segurantzaren³¹ bermatuz, zerga progresiboak³² bultzatuz eta ustiatzaileei³³ trabak, eta zergak jarritz. Benetako ekonomia industrialari kredituak³⁴ luzatu behar zaizkio. Kreditu-ekonomia³⁵ da funtsa: inbertsio zuzena, eta, enpresari berrien eta langilearen arteko itun estrategikoa bilatuz. Horien arteko akordio edo itun estrategikoa³⁶ bat gauzatu behar da.

Itun estrategikoa horretara iristeko, langileak bere politika argi, garbi eta zehatza eduki behar du, bestela jai.

31 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/segurtasun-sozialaren-privatizazioa-ez-mila-esker>.

32 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/politika-fiskal-berrirako-sarrera>;
<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/politika-fiskal-egoki-baterantz>.

33 Ikus: <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/diru-beroa-diru-beltza>;
<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/hipotekak-morrontzorako-bide-zuzenak>;
<http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/morrontza-ekonomikorako-bide-zuzen-berriak>; <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/zorrak-ordaindu-behar-dira>.

34 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/kredituaren-garrantziaz-hitz-bi>.

35 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/kreditu-ekonomia>.

36 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/itun-estrategikoa-baten-bila>

JOSEBA GARMENDIA ALBARRACIN

EKONOMIAN LIZENTZIATUA. UPV EHU-KO IRAKASLEA



1. Zer antzekotasun eta zer desberdintasun ditu egungo krisialdiak produkzio eredu kapitalistari datzekion krisialdi zikloekin?

Aldiro sortzen diren krisi industrialen zio nagusia kapitalismoak ondasunak saltzeko aurkitzen dituen zailtasunetan datza, gain-produkzio krisia izenez deitzen den horietan. Kapitalismoak izaera anarkikoa du, ekoizpen, akumulazio eta inbertsio erabaki gehienak era indibidualean hartzen direlako. Ondorioz, aldiro kapitalaren super akumulazio egoerak eta gehiegizko ahalmen produktiboko egoerak sortzen dira uneko erosmen ahalmenarekiko. Are gehiago, erosmen ahalmen hori ez nahikoa bilakatzen da kapitalistek soldaten bilakaera produktibitate-hazkundearen azpitik mantentzen saiatzen direnean mozkinak biderkatzeko. Gain-produkzio egoeran mozkin tasen beherakada gertatzen da hiru indarren baturaz: langileko kapitalaren igoera, soldaten igoera eta esplotazio tasaren beherakada, eta azkenik, lehiaren ondorioz ondasunen salneurrien beherakada. Finean, mozkinen tasen beherakadak gero ekonomiaren deskapitalizazioa dakar enpresak ixten direlako eta langabeziaren ondorioz soldatek beherako presioa jasaten dute. Krisi molde honen adibide klasikoa, 70. hamarkadan suertatutakoa litzateke, fordismoaren eredu sozio-ekonomikoaren amaiera ekarri zuena, baita ideia neoliberalen nagusitasuna ere.

Fordismoaren krisiarekin batera 1944an Bretton Woods-eko Hitzarmenean eraiki zen finantza eta moneta arkitektura deuseztatua geratu zen, eta moneten kanbio-tasak finkoak izatetik higikorrek izaera pasa ziren. Horretaz gain, polita neoliberalaren eta bereziki Nazioarteko Moneta Funtzaren bul-tzadaz, eta informazio eta komunikazio teknologia berrien laguntzaz, kapitalen mugimendu askea ezartzen joan da mundu osoan. Ingurune berri honetan mundu mailako finantza-merkatuak, burbuila espekulatzailak, paradisu fiskalak eta aktore berriak (aseguru konpainiak, pentsio-funtzak eta inbertsio-funtzak esate baterako) sortzen eta ugaltzen joan dira, globalizazioa izenez ezagutzen den eredu kapitalistaren ezaugarri nagusia eraikiz.

Nazioarteko finantza-merkatu globaletan aurki dezakegu krisi honen berezitasun nagusia, burbuila espekulatzailen eztandan sortzen baita finantza-krisi hau. Eta ez da fenomeno berria, lehena-go beste finantza-krisiak gertatu baitira, hala nola, Latinoamerikan 80. hamarkadan suertatuko kanpo-zorraren krisia, 90. hamarkadako japoniar krisia, 1994-95eko Mexikoko finantza-krisia, 1997ean Asiako Hegoekialdean suertatutakoa, 1998ko Brasil-Errusiar krisia, 2001ko Argentinako krisia. Bitxia da nola Bretton Woods-eko sistema monetarioaren gainbeheraren ondoren, eta neurri batean ondorioz ere, ugaltu egin diren mota honetako krisiak. Aipaturiko krisi guztia hauek, hastapen eta zergati ezberdinak izanik ere, aldagai finantzarioak dituzte eztanda faktoreen artean, zor-krisiak, banku-krisiak eta moneta kanbio krisiak konbinatuz.

Oinarritzko eta sakoneko faktorea da ekoizpen-ekonomiak sortzen duen soberakina nola erabiltzen den, nola berrinbertitzen den. Adieraz gaitezen. Ekoizpen sisteman errentagarritasuna baxua denean, metatutako kapitalari eremu hori ez zaio erakargarria eta finantza ekonomia desbideratzen da, mozkin altuagoaren bila. Burbuilaren logika etorkizunean salneurriak goraka egingo duen ustean datza. Horixe gertatu zen interneteko enpresekin, ondasun higiezinekin, etxebizitzekin edota finantza-sektoreko operazioekin. Azken hauen artean berriki sortu diren sasi-aktibo kreatibo eta iruzurtzailak beste berezitasun bat dute gainera: paperen trukean oinarritzen da eta ez da baliorik sortzen, batek irabazten duena beste batek galtzen du. Gakoa da noiz sartu eta noiz irten jakitea, burbuilek hustu edo eztanda egiten dutelako. Eta Amerikako Estatu Batuetan abiatu den krisi hau bi burbuilen eztandaz azalarazten da: burbuila inmobiliarioa eta zabor-tituluen inguruan sortu den finantza-burbuila. Higiezin krisia hipoteka-krisia bilakatzen da; gerora subprime maileguak estaltzen zituzten zabor-aktiboak mundu osoan barreiatu direnez banku-krisia sortzen da; bitartean burtsen

krisia ere ematen da, eta azkenik, ekonomia produktiboari eragingo dion krisi industriala eta atzeraldia eragiten ari da.

Burbuila hauen sorrera eta eztanda esplikatzeko instantzia ezberdinetatik (politikoak, enpresariak, banka-gizonak, Eliza,...) faktore psikologiko edota moralak aurkeztu izan dira, pertsonen lukurreria edo diruzalekerian oinarrituta. Interpretazio hauek nahita ahazten dute sistema kapitalistaren funtsezko genea dela lukurreria, mozkinaren maximizatzea baitu helburu zein gidari eta horrela onartzen da baita teoria ekonomiko neoklasikoan ere. Azterketa serioek erantzun beharko luketen galdera, ordea, ze oinarri objektiboek bideratzen duten lukurreria eredu sozial eta ekonomikoaren oinarri, litzateke.

Oinarri objektibo horien artean, erabaki ekonomikoaren grabitate-zentroa ekoizpen arlotik finantza arlora igaro izana dago. Zehatzago, adar produktiboetan ematen den plusbalioaren sorkuntzak lehentasuna izatetik, finantza-inbertsioetan sortzen diren mozkinen birbanatzearen menpe geratu da. Ekoizpenean eskuak zikindu gabe mozkina lortu. Horixe oligopolio finantziarizatuen lema, zeinen artean banku eta aseguru-konpainiez gain, industria, zerbitzu edota garraioetako enpresa multinazionalak dauden.

Esparru produktiboan lor ezin daitezken errentagarritasunak eskuratzeko finantza-burbuila sortu dute mundu osoan. Noizbehinka periferiako herrialdetan krisiak sortuz, eta oti-izurrite baten moduan, bertako aberastasunak eskuratuz, errentagarritasunak elikatzen dituzte eta bide batez burbuila bera. Burbuilak muturrean eztanda egin dien arte. Logikoa zena, bestalde, ekonomia eredu hau ez delako iraunkorra, mundu mailako finantza-transakzioak 2.000 bilioi dolarretik gora izatea ez baita bateragarria ekonomia errealekin, munduko Barne Produktu Gordina osoa 52 bilioikoa denean. Eta kapitalismo espekulatuak hau errotik aldatzen ez bada, martxan jartzen ari diren erreskate plan eta neurri antizikliko guztiak berriro burbuila bera puzteko erabiltzen bada, krisi hau berriro errepikatuko da. Noski, kapitalismo espekulatuak honekin amaitzeko erantzun beharreko galderak lirateke produkzioak sortzen duen soberakinarekin zer egin?, non erabili?, nola banatu?.

Bestalde, sistema produktiboan berrinbertitu ezin daitezken kapitalek sortutako kasino maltzur honen gainbeherak hausnarketa gehiagorako aukera eskaintzen digu. Hona hemen bi hipotesi: I) sistema produktiboan lekua topatzen ez duten kapital (errenta edo balio erantsi) hori sistema logiko berdintzaileago batetan langileen artean banatu daiteke, lan orduak murriztuz edo beste herrialdeetan garapena sustatuz eta soldatak igoz adibidez; eta II) sistema produktiboan lekurik ez badu, gizarte garatu honetako behar materialak aseta egotearen seinale, eskariak egonez gero, negozio-rako oportunitatea dagoenez enpresetan inbertituko luketelako (oharra: herrialde garatuetako batez besteko terminoetan ari naiz mintzatzen, guztiok 30.000 euro irabaziko bagenu bezala; baina munduko batez besteko errenta 7.500 eurokoa da).

Noraezean dabilen kapital hori sortu beharrean ez al da logikoagoa adibidez lanorduek murriztu, soldata mantendu eta parekatu, eta mozkinak murriztu. Aberatsek beraien luxuzko kontsumoaz haratago soberan duten diruarekin zer egin edo non inbertitu ez badakite, hobe eskutik kentzea sekulako kaos finantzarioa sortu baino lehen, eta erabilera hobeagoa eman: esate baterako gosea munduan desagerrarazi (Nazio batuen arabera 30.000 milioi dolar, Bushek bankuen erreskaterako erabiliko duen dirutzaren % 4a besterik ez).

2. Nola uler daiteke interbentzionismoa eta botere publikoek hartzen ari diren zenbait erabaki, eta zer neurri eta prezioetan lortuko dute egoera gainditzeko irtenbidea?

Abian jarri diren bankuen erreskate planen helburua finantza krisia ekoizpen-ekonomiara ez kutsatzea da, bankuen porrotak zein hauen maileguen iturria lehorteak ekonomia hein handi batetan geldiaraziko bailuke, enpresek kapital zirkulatuak behar dutelako, nazioarteko merkataritza mai-

leguetan eusten delako, ondasun iraunkorren kontsumoa maileguetan oinarritzen delako eta inbertsioaren kasuan enpresek abiatzen dituzten berrikuntza edota hedapen egitasmoetara aurrezkiak bideratzen direlako banka-sistemaren bitartez.

Erreskate plan eredu bi dago mahai gainean, George Bush-ena eta Gordon Brown-ena. Estatu Batuetakoaren asmoa zabor tituluak erostea zen bankuetan zuloak estaltzeko. Estatuak bankuei dirutza galanta oparitu, etorkizunean baliorik izango ez duen titulu batzuen truke. Bush-ek boterea utzi baino lehen diru publiko lapurreta hau azkartu egin du, egunotan behin betirako alboratu baino lehen. Europako ereduak aldiz, Suediako aurretiko esperientzian oinarrituta, bankuen kapitalizatzea bilatzen du bankuen akzioak erosiz, jabego zati bat eskuratuz. Honek teoriaraz azaroren munitari erantzuten dio, kapital handiagoa maileguen euskarri delako, (hurrengo atalean zehatzago adieraziko dugu).

Arazoa sortzen da bankuen kapitala indartu arren, hauek mailegua murrizten jarraitzen dutenean. Horixe kritikatzeko zuen Paul Krugman-ek duela gutxi, erreskate planen baliogabetze faktikoa ekarriko lukeelako. Jabegotik datorren erabaki ahalmena erabiltzea eskatzen zuen maileguaren iturria irekitzera behartzeko.

Espainiar Estatuaren kasuan orain arte (2008ko Azaroak) ezagutu duguna bankuei kalitate handiko finantza-aktiboak erosteko eskaintza izan da, 30.000 milioi eurotara iritsi daitekeen eskaintza. Hipoteka seguruak batzen dituzten aktibo horien truke lortzen den diruagatik % 3,15 interesa ordaindu behar dute bankuek estatuari, Euriborraren beheiti. Baina ikusteko dago bankuek diru hori maileguen iturria zabaltzeko erabiliko duten ala negozio ziburra egiteko. Hau da, Estatuak 30.000 milioi euro horiek eskuratzeko zor publikoa emititzen badu eta interes tasa % 4, % 5ean edo gorago ezartzen badu, bankuek nahikoa dute lehenago jaso duten diruaz zor publikoa erostea, puntu bat edo biko margena inolako arriskurik gabe lortzeko.

Nork ordaintzen ditu bankuen erreskate plan hauek? Antza aurrekontu publikoa ez da erabiliko eta zor publikora joko da Maastrichteko muga santuak pikutara bidaliz (defizit publikoa BPGaren %3aren azpitik eta zor publikoa BPGaren %60aren azpitik). Zor publikoaren interesak ordea, aurrekontutik ordainduko dira eta urte batzuen buruan erositako akzioak prezio onean saltzen ez badira aurrekontura jo behar da. Gainera aurreko paragrafoan aipaturiko aukera ematen bada, bankuek aurrekontu publikotik lortuko dituzte mozkinak. Hots, zergapekook, gehiengoak langileok, ordainduko genuke.

Asaldagarria da nola krisi egoera honi aurre egiteko enpresei eta errenta altuko pertsonen zergak murriztea proposatzen den (elkarte-zerba murriztu eta ondare-zerba kendu), krisi honen oinarrian dagoenean aberatsen errenta soberakinak inbertsio produktiboan ez, espekulazioan baizik erabili izana. Eric Toussaint-ek argi dio, bankariak ez, kreditua eta langileen gordailuak salbatu behar dira eta triskantza honen arduradunen ondasunetara (bankuetan ezarri duten kapital zatiaz haratago) joan behar litzateke salbamendu planak finantzatzeko, isun gisa. Baina honek desjabetze dinamika eskatuko luke, izugarriko errenta desberdintasunak sortzen dituen jabego pribatuaren eskubide ukiezinaren aurka. Ea nork duen ausardia, konbentzimendu ideologikoak gain!

Bankuen erreskatetik haratago muinean pentsamendu neoliberalaren krisia dago. Hitzes sinesmen neoliberalaren eusten saiatzen diren arren (Bush 2008-11-13; Zapatero 2008-11-25 adibidez), ekintzetan keynesianismoa ari dira praktikatzeko. Oso bitxia da Washington-eko Kontsentsua deituriko dekalogoan jasotzen diren neurriak nola izan diren urratuak. Washington-eko Kontsentsuan Munduko Bankuak eta Nazioarteko Moneta Funtsak martxan jartzen zituzten planen ardatzak jasotzen ziren eta edozein egoeratan aplikatzen zen. Berdin balio zuen Latinoamerikako kanpo-zorraren arazo konpontzeko, Sobiet Blokearen kapitalismorako trantsizioa egiteko, edota 1997ko Asia Hego-ekialdeko finantza-krisiari aurre egiteko. Munduko periferiako herrialde horiei eskatu zaizkien sakrifizioak ez dira, ordea, munduko zentroko krisia konpontzeko erabilgarriak. Aitzitik, orain kontrakoa egiten da:



ekonomia interbenitu, bankuak diru publikoarekin erreskatatu, automobilgintza sektorea diru-laguntza publikoz sustengatu, zor eta defizit publikoa handitu, interes tasa jaitsi, kapital pribatuaren mugimenduak arautu eta kontrolatu, privatizatu ordez bankuak estatalizatu...

Pentsamendu eta praktika neoliberalaren krisia unekoa soilik den ala luzerakoa, krisi partziala ala osoa den, oraindik ikusteko dago. Bankuetan interbenitzen den bitartean, eskari agregatua estimulatzekeo gastu publikoko politika keynesiarrak martxan jartzen diren bitartean, lan merkatua gehiago malgutzeko saioak hori dirautelako, pentsioak murrizteko egitasmoak publiko egiten direlako, errenta altuko pertsona fisiko eta juridikoei zergak murrizten zaizkielako. Gainera badago neoliberalismoaren aldeko ofentsiba berria aktibatua, esaten duena krisi honen ardura gaizki arautu eta gehiegi desarautu duten erakunde publikoengan dagoela. Hipokresiaz ezkututzen dute erakunde publiko hauek (Erreserba Federala, Basilea II akordioak, Nazioarteko Moneta Funtsa) egin dutena finantza aktoreek eskatutakoa izan dela, azken hauen zerbitzura daudelako.

Pentsamendu eta praktika neoliberalaren krisia erabatekoa izateko alternatiba ideologiko eta praktikoa eraiki beharra dago, neoliberalismoaren sinesmen-printzipioak (merkatua bakarrik arautzen da, merkatuak enplegu osoa eta baliabideen banaketa optimoa ziurtatzen du, adibidez) ordezkatzeaz gain, ekonomia eta gizartea antolatzekeo beste eredu berria proposatuz. Horren faltan neoliberalismoaren bultzatzaile sutuena izan zen Friedrich von Hayek eta John Maynard Keynes-ek 1932 urtean izan zuten eztabaida errepikatuta ikusiko dugu, eta beste eredu batetarako oinarriak ezartzekeo aukera galduko litzateke.

3. Zer mailako eragina jasango du erreala deitutako ekonomiak kapitalaren espekulazio-mugimenduengatik sortu den krisi honen ondorioz?

Finantza esparruan hazitako krisia ekoizpen eta kontsumo arlori zabaltzekeo mekanismoak anitzak dira. Bi bide aipatuko ditugu: i) kredituaren murrizketa; eta ii) mesfidantza.

1) Kreditu murrizketari dagokionez ('credit crunch'), maileguen murrizketak ondorio zuzena du bai kontsumoan bai inbertsio planetan bai nazioarteko merkataritzan. Etxebizitzan, etxeke tresnen, ibilgailuen, makinen salerosketan esate baterako maileguak ezinbestekoak dira eta faltan salmenta horiek ez dira gauzatzen, ekoizpenaren eta lanpostuen doikuntzaren beharra sortuz.

Mailegu murrizketa hau hiru indarren baturaz ematen ari da egungo egoeran: batetik, berankortasunak edota ezegonkortasunak gora egiten duenean bankuek arrisku prima igotzen dute eta ondorioz interes tasa igotzen da eta eskatzen diren bermeak gogortu egiten dira. Gure kasuan, hipoteka maileguetan erreferentzia Euribor + 0,5 izatetik, Euribor + 1,0 edo altuagoa izatera igarotzen ari da. Bigarrenik, subprime hipoteketan oinarritutako zabor tituluek sortzen dituzten galerak estaltzekeo, bankuek probisioak sortu behar izan dituzte beraien kapitala gutxituz. Kapitala eta maileguen artean erlazioa dagoenez, bai legez, bai praktika komertziala egokiari erreparatuta, kapital txikiagoak maileguak eskaintzekeo margena estutzea dakar.

Hirugarrenik, lehenago aipaturiko zabor-titulu horiek bankuen artean barreiatuta egonik, inork ez daki banku bakoitzak zenbat zabor erosi duen, ze nolako esposizio maila duen eta ze nolako zailtasunak eduki litzaken epe labur eta ertainean. Honen ondorioz bankuen arteko merkaturan, non bankuek beraien artean zorpetzen diren epe laburrerako likidezia lortzekeo eta non Euribor ospetsuaren balioa egunero zehazten den, mesfidantza zabaltzen da eta mailegu iturriak erabat ixten dira. Horrek Euribor tasa goratzea dakar eta bankuen likidezia lehortzen du. Likidezia lehortzeari aurre egitekeo bankuek maileguak emateari utzi egin behar diote eta aurrezkiak bereganatzeari ekin (hori dela ikusten ari gara gordailuentzat % 5 eta goragoko interesen eskaintzak bankuen publizitatean).

2) Bankuen arteko merkatuan hedatzen den mesfidantza ekonomia orokorrean zabaltzen da, bai kontsumitzaileen artean, bai enpresarien artean, bai burtsan zuzenean edo inbertsio funtsen bitartez zeharka inbertitzen dutenen artean, bai aurreztaileen artean. Azken hauen artean bankuak itxtearen beldurra suspertzen bada gordailuek ateratzera joko dute tropelean, 1929ko Crack-en edota 2001ean Argentinan gertatu bezala, eta profezia autokonplitu gisa, bankuek porrot egingo lukete. Kontutan izan behar baita bankuek gure dirua mailegutan erabiltzen dutela eta kutxan ehuneko txikia gorde behar dutela legez. Beldur horiek uxatzeko Estatuek aurrezkien gehieneko berme publikoa igotzen dute Europan. Derragun bide batez, Estatuari ezinezkoa zaiela gordailu guztiak estaltzea. Hego Euskal Herriko gordailuak iaz 74.750 milioi euro izanik, instituzio guztien aurrekontua 18.050 milioitakoa izan baitzen. Dena den, inork irudikatzen ez duen eszenarioa da.

Bestalde, etorkizun hurbilean zailtasunak egon daitezkeela uste bada, kontsumitzaileek erosketa potoloak (ibilgailua, etxeko tresnak, etxebizitzak...) atzeratzea erabaki ohi dute eta badaezpadazko aurrezki handitzea. Ondorioz kontsumoa murriztu egin ohi da. Antzeko erabakiak hartzen dituzte enpresariak beraien inbertsio egitasmoekin, makinak berriak, teknologia berriak erabili, lantokian hobekuntzak edo erreformak egin eta antzeko bezalako erabakiak izoztu egiten dira ostarateak zabalduko diren ikusi arte.

Azkenik, ikusita burtsaren beherako tendentzia, inbertsio funtsetan edota burtsari lotutako pentsio funtsetan inbertitu dutenek beraien posizioak desagitera jotzen dute, horrek akzioen salmenta ugaltzea eta akzioen salneurrien beherakada erakarrit. Burtsak beherago egiten du alegia, eta ondorioz, inbertitzaileek aktibo seguruagoetara jotzen dute (zor publikoa adibidez) gehienetan galera nabarmenak garraiatuz, burtsatik garaiz atera ez direnean. Inbertitzaile txikiek galerak dituztenean egoera konpontzeko gehiago aurreztu beharra dute eta ondorioz kontsumoak behera egiten du.

Finantza-ekonomiatik ekoizpen-ekonomiara krisia kutsatzeko bide nagusiak hauek dira. Hala ere, beste hainbat eragin kontutan hartzekoak dira. Horietako bat etxebizitza-burbuilaren eztanda da. Ondorioz etxebizitza gutxiago saldu eta eraiki behar dira, eta etxebizitzari lotutako ondasunen eskaera (sukaldeak, etxeko tresnak, garabiak, altzariak...) behera egingo du. Beste bat, deflakzio arriskua ere. Deflakzioa salneurrien beherakada orokorra da, hots, eskariaren beherakada orokorraren aurrean enpresariak salneurriak jeistea erabakitzen dute lehiatu ahal izateko. Horrek espiral deflakzionario ekar lezake eta uste zitekeenaren kontra kontsumoa gehiago murriztu dezake, etorkizunean gehiago merkatzearen zain jarri baitezake kontsumitzailea. Deflakzioaren mekanismoak enpresen salmentak eta tarte komertziala murriztea dakar, ondorioz ekoizpena doitu langileak kaleratu beharra dago eta soldatak murriztu.

Eraginaren tamainari begiratzeko kontutan izan behar dira efektu biderkatzaileak. Hots, jarduera sektoreek beraien artean erabat erlazionatuta daude eta sektore batetan egon daitekeen ekoizpen eta lanpostu murrizketak beste sektore askori eragin diezaioke, autoelikatzen diren efektu biderkatzaileak sortuz. Adibidez, kalkulatu da ibilgailuen ekoizpenean lanpostu baten galerak inguruko ekonomian beste lauzpabost lanpostu gehiagoren desagertzea dakarrela. Oraindik goiz da dena den jakiteko ekoizpenaren kontrakzioa neurtzeko. Ikusteko baitago Estatuek abian jartzen ari diren planek izango duten eragina.

Dena den, krisi honek duen ezaugarri garrantzitsuena edota ondorio lehenetarikoa mailegu murrizketa posiblearen tamaina da. Eta arlo honetan ikusiko dugu erreskate planek arrakasta duten ala ez. Adieraz gaitezen. Subprime hipoteketan oinarritutako zabor tituluen ondorioz munduko bankuetan galerak dolarretan 1,4 bilioitik (12 zero) gora jo dezakeela kalkulatu du Munduko Moneta Funtsak urriko txostenean. 1,4 bilioiko galerak tamaina berdineko deskapitalizazioa dakarkio banku-sistemari galera horiek estali egin behar direlako. Kalkulatu da kapitala eta maileguen artean 1:10 inguruko erlazioa dagoela, horrek esan nahi du kapitala 1,4 bilioitan murrizten bada kreditua 14 bilioitan murriztu daitekeela, eta hauek ikaratzeko zifrak dira munduko Barne Produktu Gordinarekin parekatzen badugu, 52 bilioi dolarrekoa hain zuzen. Mailegua 14 bilioitan murrizten bada, kontsu-

moa, nazioarteko merkataritza, edota inbertsioa tamaina berdinean murriztuko delako, hau da, munduko BPGaren laurdena. Eta horrek eragin depresibo deuseztatzaile izugarriak izango lituzke.

Aurreikuspen ofizialek diote datorren urtean Europako eta Ameriketako herrialde industrializatu ia gehienek atzeraldian sartuko direla. Inork ez daki zenbat iraungo duen atzeraldia. Esperantza garen bidean dauden herrialdeetan dago, Txina, India eta konpainian, hauen hazkundea zulotik ateratzeko soka izan daitekeelako; baina azken datuak ere balizko irtenbide honekiko baikorregiak ez dira. Dena den, oraindik orain, arrisku nagusia banku sistemaren ahulezian eta maileguen murrizketa sakonean dago. Baita ere, ekonomia errealean iada izan duen eragina handiagotzen joango den ala ez. Hainbat adituek zalantza jarri dute kontsumo suspertzeko bitartekoek arrakasta izango duten, ikusita ze neurri arte familiak zorpetuta dauden, burtsan aurrezkiak galdu duten eta egoerarikiko mesfidati diren, eta beldur dira neurri suspergarri horiek aurrezteko edota zorra txikitzeko erabiliko duten, kontsumora bideratu beharrean. Eta kontsumo pribatua urtetan apaltzen bada epe luzerako atzeraldia izan dezakegu, berau Barne Produktu Gordinaren % 60a suposatzen baitu.

4. Zer sendotasun eta ahulezia du euskal ekonomiak nazioarteko egoera ekonomiko hain zalantzagarriaren aurrean?

Krisi honi begira sendotasunak eta ahuleziak zehazteko orduan finantza edota banku-sistemaren osasunetik haratago begiratu behar dugu, gure ekonomia batipat industrial eta irekia baita. Mehatxuak kanpotik datozkigun bezala sendotasunak eta ahuleziak barnean ditugu.

Sendotasunen artean honako hauek aipatuko genituzke:

- 1) Egitura produktiboari begiratuta mugiezinen burbuilaren ezta gertatzen duen eragin du Hego Euskal Herrian, eraikuntzak duen presentzia Estatuan baino txikiagoa delako. Bestalde, jarduera adar ba-tzuetan hazkuntza aurreikuspen garrantzitsuak daude, hala nola, energia eolikoari zuzenki eta zeharka lotutako enpresak, edota garraio kolektiboari (trenak, autobusak...) lotutako enpresak.
- 2) Gure industriaren internazionalizazioa, merkatu gehiago eta herrialde mota ezberdinetara esportazioak bideratzera arriskuak dibertsifikatzeko aukera eman baitezake. Egia bada ere, gure esportazio industrialen zati nagusia (% 70 tik gertu) epe laburrean atzeraldian sartuko diren Europar herrialdeetara bideratzen dela, badago lagungarri gerta daiteken kultura esportatzailea.
- 3) Positiboa izan daiteke espainiar Estatuarekin alderatuta euskal administrazio publikoek industria-politika egiteko ibilbide sendoagoa duela. Politika horrek duen ahulezi guztiekin ere, ohi-tura eta praktika horrek errazagoa egiten du sare industrialean interbenitzeko aukera, bai eskema ideologikoen aldetik bai egitura laguntzaileen existentziaren aldetik. Beste kontu bat da aukera horiek profitatzen diren ala ez, eta hori politikoen esku dago.
- 4) Gure sare industrialean enpresa txiki eta ertainak nagusi izatea ahulezi gisa jo izan ohi da. Baina enpresa mota honek orokorrean egonkortasuna ematen dio egitura produktiboari, jabeak gure geografian lotuago daudelako, gertutasunagatik langileen presioak erabakigarriak gertatzen direlako, jabeak ere langileak izan ohi direlako. Hau da, enpresa hauek ixteko edota deslokalizatzeko aukera zailagoak dituzte, eta hortaz enplegua hobeto mantentzen dute. Nabardurak noski gehitu behar dira: sindikalizazio maila txikiagoa, aurretiko erretiro neurriak erabiltzeko ezintasuna, finantza-koltxoi txikiagoa, enpresa handiagoei menpekotasun osoa edota tamaina txikiari lotutako kudeaketa arazo eta ahuldadeak (finantza-iturri, kudeaketa-profesionaltasuna, merkataritza, berrikuntza...). Hala ere, enpresa hauek geografian errotuagoak daude.

- 5) Ildo berdinean kooperatibismoak ezaugarri antzekoak ditu. Krisien aurrean beren sendotasuna erakusten dute eta lanpostuen mantentzearekin edota ahalik eta gutxien murriztearekin konpromisoa hartzen dute, bere geografian sustraituak daudelako langileak jabeak diren heinean. Gainera MCC taldeak dinamismo handia erakutsi izan du arlo ugarritan eta taldean duten elkartasun mekanismoek krisiaren eragina murrizteko balio dezakete.
- 6) Indar sindikalak eta ezkerreko indar politiko eta sozialak sendoak egon badaude. Horiek era arrakastatsuan lan ildo bat burutzen badute krisiaren eragina galgatu dezakete. Lan ildoa norabide honetan bideratu daiteke: langileek eskubideen defentsan, babes sozialaren hobekuntzan, zergen progresiboan bitartez errenta politika birbanatzaileak martxan jartzen, lanaldiaren murrizketa, kontraerreforma neoliberalaren aurkako zutabeak ezartzen eta ondorioz epe erdira beste eredu ekonomiko bat (ekonomia mistoa, kooperatibismoa, kogestioa enpresetan, politika industrial aktibo eta publikoa) eraikitzen joan, botere mailak berreskuratuz. Zentzu honetan ezker abertzalearen ilegalizazioak oztopo garrantzitsua bilakatzen da.

Ahulezien artean honako hauek aipa daitezke:

- 1) Egitura produktiboaren aldetik, gure industriak dibertsifikazio eskasa erakusten du jarduera adarrekiko. Are gehiago, 70-80. hamarkadetako krisian izandako egitura industrial oso antzekoa dugu, azken 14 urte hauetan bizi izan dugun hazkunde ekonomikoaz baliatu ez garen seinale (merkatua, bere kasa utzita, dibertsifikatzeko gaitasun ezaren seinale, bide batez). Horrek esan nahi du, berriz ere espezializatuta gauden sektoreetan ematen bada mundu mailako produkzio beherakada, bete betean harrapatuko gaitu. Metalgintza da adar horietako bat, eta metalgintzak automobilgintzari edota eraikuntzari hornitzen badio efektu negatiboa larria izango da, horixe gertatzen ari da Arcelor-Mittal taldeko enpresetan, edota hainbat fundizioetan. Etxeko tresnen sektoreak ere beherakada nabarmenak jaso ditu, Fagor-ek bere salmenten laurdena galdu du esate baterako. Automobilgintzan eragina oso gogorra da, autoen salmentak % 40 behera egiten badu, eta hor ditugu Volkswagen, Mercedes, Michelin... Sektore hauek gure industriaren erdia inguru suposatzen dute.
- 2) Egitura industrialaren aldetik ere, ekoizten ditugun ondasunen hein handia inbertsiora zuzentzen dira eta ondasun mota honek ziklo sakonagoa izaten du. Kontsumo arruntera bideratutako ondasunek ziklo apalagoa dute, krisian edo ez kontsumo maila ez duelako gehiegi oszilatzen. Aldiz, inbertsiora zuzenduriko ondasunak inbertsio plan edota erabakien menpe daude, eta hauek ziurgabetasun egoeran atzeratu, izoztu edo bertan behar geratu ohi dira, bat-batean eskariak erabat ondratuz. Horixe gertatzen da automobilgintzarekin, etxeko tresnekin eta ikusteko dago orain arte oso ondo doan makina erreminta sektorearekin. Makina erreminta balio erantsi handiko sektorea da, osagarri teknologiko altukoa, eta oraingoz eskari-zorroa betea du; baina ikusteko dago zer gertatuko den Alemania, Frantzia edota Italia atzeraldian sartzen direnean. Kontutan izan behar da sektore hau esportazio guztien % 40 inguru suposatzen duela eta atzeraka arraste-efektu garrantzitsuak dituela bai metalgintzan, bai garraio sektorean adibidez.
- 3) Atzerriko kapitalek kontrolatzen dituzten enpresa erabakigarrietan kanpoko erabakien menpe aurkitzen gara, eta enpresa hauek Euskal Herrian dauden handienak dira: Arcelor-Mittal, Volkswagen, Mercedes, Michelin,... Erabaki horietan krisiaren ondorioz egin beharreko produkzio eta enplegu doikuntzak non eta nola egin zehazten da. Erabakia bada Euskal Herrietan izan daitezken lantokiak ixtea edo ekoizpena esanguratsuki murriztea, efektuak oso kaltegarriak izan daitezke. Adibide bat, Volkswagen-en desagerpenak, hau da, faktoria ixtea eta 5.000 langile baino gehiago kaleratzeak, Nafarroa Garaian sor dezaken eragin osoa, 25.000 lanpostu goitiko galera izan daiteke, herrialdeko lanpostuen % 10 alegia.

- 4) Lan harremanetako esparru propioa ez izateak sindikatuen aldeko indar korrelazioa aktibatzea oztopatzea dakar. Egoera honen ondorio izan dira lan errenten proportzioa murriztea (1980an Barne Produktu Gordinaren % 57 izatetik 2007an % 48 izatera igaro da); lan-malgutze politika guztiak, zeinek langileen eskubideen galeraz gain, gure enpresen lehiakortasuna makaldu duten kostuen murrizketan lehiatzera joera indartu dutelako, ikerketa + garapen + berrikuntzan lehiatzearen bidearen kaltetan; eta babes sozialerako mekanismoak eta errentaren birbanaketarako zerga-neurriak ahultzea.
- 5) Administrazioek lehenesten dituzten inbertsio egitasmo desegokiak dira. Egia bada enpleguan eragin positiboa izan dezaketela, azpiegitura erraldoi eta obra zibiletan tematzeak ez da bide eraginkorra. Beste motako gai eztabaidagarriez gain (ingurumena, kostu-mozkin analisia, onura soziala), azpiegiturak garapen ekonomikoan duten eragina zalantzazkoa da, 1999ean European egindako SACTRA (Standing Advisory Committee on Trunk Road Assessment) Txostenak ondorioztatzen duen bezala. Gainera, eraikuntzaren alorrean inbertsio publikoak kontzentratzea, maila teknologiko apaleko, balio erantsi baxuko eta soldata baxuko sektorea indartzea da, gure industriaren dibertsifikazioak eskatzen duenaren kontrako. Epe laburrerako apustua, ertainean ordaina ekarriko duena.